



AGINDUA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, "BILBOKO, DONOSTIAKO ETA VITORIA-GASTEIZKO GOTZAINDEGIAK" ENTITATEEI DIRULAGUNTZA IZENDUN BAT EMATEKO DENA 2021. URTEAN

ORDEN DEL CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, POR LA QUE SE CONCEDE UNA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A LAS ENTIDADES "OBISPADOS DE BILBAO, SAN SEBASTIÁN Y VITORIA-GASTEIZ" EN EL AÑO 2021

Tramitagune: AAAA_ORD_AY_1838/21_11

Tramitagune: AAAA_ORD_AY_1838/21_11

Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legeak esaten duenari jarraituz,

De conformidad con la Ley 1/2021, de 11 de febrero, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2021,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa.- BILBOKO, DONOSTIAKO ETA VITORIA-GASTEIZKO GOTZAINDEGIAK entitateei 92.000 euroko dirulaguntza izendun bat ematea, elizaren titularitateko ondare dokumentala digitalizatzeko, honako ehuneko hauen arabera:

Primero.- Conceder una subvención nominativa a las entidades OBISPADOS DE BILBAO, SAN SEBASTIÁN Y VITORIA-GASTEIZ por importe de 92.000 euros, para la digitalización del patrimonio documental de titularidad eclesiástica, conforme a los siguientes porcentajes:

| GOTZAINDEGIA | | ZENBATEKOA (€) | |
|--------------|------------|-------------------|--------|
| Bilbo | R-4800011A | %40 | 36.800 |
| Donostia | R-2000011C | %33 | 30.360 |
| Gasteiz | R-0100007D | %27 | 24.840 |

| OBISPADO | | IMPORTE (€) | |
|----------|------------|----------------|--------|
| Bilbo | R-4800011A | %40 | 36.800 |
| Donostia | R-2000011C | %33 | 30.360 |
| Gasteiz | R-0100007D | %27 | 24.840 |

Dirulaguntza 11.4514.11.454.99.008 kontu-sailari egotziko zaio.

La subvención se hará con cargo a la partida presupuestaria 11.4514.11.454.99.008.

Bigarrena.- Dirulaguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da:

Segundo.- El abono de la subvención se hará efectivo en dos pagos:

- Lehenengoan %75, behin agindu hau emanda.
- Bigarrean gainerako %25a dirulaguntza justifikatu eta gero.

- El primero por el 75% una vez dictada la presente orden.
- El segundo por el 25% restante previa justificación de la subvención.

Hirugarrena.- Dirulaguntza justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da: batetik, jatorrizko fakturak edo egiaztatutako kopiak eta, bestetik, gauzatutako jardueren gaineko txostena.

Tercero.- La justificación de la subvención se realizará mediante la presentación de facturas originales o copias compulsadas, así como la aportación de una memoria relativa a las actividades ejecutadas.

Dokumentuak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 12an bukatuko da.

El plazo de presentación de la documentación justificativa finalizará el 12 de enero de 2022.

Laugarrena.- Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio dirulaguntza hau kudeatzea.

Cuarto.- El órgano gestor de la subvención es la Dirección de Patrimonio Cultural.





Bosgarrena.- Entitate onuradunak xedapen hauek bete behar ditu: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Tituluan ezarritako laguntzei eta dirulaguntzei buruzko araubide juridikoa, eta xedapen horretako 50.2 artikuluan zehaztutako betebeharrak. Gainera, eskatutako behar adina informazio eman beharko die Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

Seigarrena.- Agindu honen bidez onartzen den dirulaguntza bateragarria da beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako emandakoekin, betiere gainfinantziatorik gertatzen ez bada. Gainfinantziatorik egonez gero, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak dagokion kitapen-agindua emango du eta esleitutako dirulaguntza beharrezkoa den zenbatekoraino murriztuko du.

Zazpigarrena.- Jakinarazi hau interesdunari, eta adierazi agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtoa aurkez diezkaiokeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Quinto.- La entidad beneficiaria queda sujeta al régimen jurídico de ayudas y subvenciones previsto en el Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, al cumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 50.2 de dicha disposición y, en particular, a facilitar cuanta información le fuera requerida por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como por la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economía y por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Sexto.- La subvención aprobada mediante la presente orden es compatible con cualesquiera otras que pudieran conceder para el mismo fin otras entidades públicas o privadas, siempre que no se produzca sobrefinanciación, en cuyo caso el Consejero de Cultura y Política Lingüística dictará la orden de liquidación correspondiente, minorando el importe de la subvención adjudicada hasta el límite que sea necesario.

Séptimo.- Notifíquese la presente al interesado o interesada, poniendo en su conocimiento que contra la misma podrá interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Cultura y Política Lingüística, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

Izp./Fdo.: BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA
CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA